2014-XI-28
Número **447.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.eus

# astekaria

## EDITORIALA

### Patronala

**Urte asko generamatzan horrelakorik ikusi gabe. Sindikatuei –bereziki ELA eta LABi– bere sindikatu izaera ukatu eta paretik kentzeko Confebaskek erakutsi duen jarrera, guztiz demokraziaren aurkakoa, oso larria da. Dokumentu bat dela edo bestea dela, gurekiko bere pentsaera politikoa erakusten du, ñabardurarik gabe. Eraso honen aurrean, askatasun sindikala eta demokrazia bera zalantzan jartzen direnean, kontutan hartzekoa da Euskadiko CCOO eta UGTk agertu duten jarrera, bakoitzaren eredu sindikalaz aparte inork ezin baitu baldintzatu eta mugatu gure zereginak eta funtzioak.**

**Erasoa ez da gurekiko gauza partikularra, eta duen dimentsioa ikusirik, Eusko Jaurlaritzak eta alderdi ezberdinek ere agertu beharko luketе bere sakoneko iritzia. Ez da txantxetakoa. Bere ordezkaritza eta zilegitasuna erakutsi ez duen patronalak diktadura eta klandestinitateko garaietara eraman nahi gaituen honetan, argi du erosi ezin duena baztertu eta ezabatu nahi duela. Bere aginduak bete ez eta aurre egitea erabaki duten erakundeak suntsitu nahi ditu, inork ezbaian jar ez dezan bere pribilegiozko egoera; hartara aginte politikoak bere zerbitzura jarri duen legedia euren interesetara moldatzeko ezin da zalantzan jarri, betikoen kontura etekinak handitzeko bada ere eta gizartea pobreturik uzten badute ere. Zein dira hauek guri ukatzeko ILP bezalako ekimenak bultzatzea edo AHTren aferan iritzia izatea edota fiskalitateari buruz proposamenak egitea? Ez al dira euren jardunean, gai hauekin besteak beste, lobby indartsu bezala aritzen politika bere zerbitzu eta esanetara jartzeko. Zer izan ziren bada opor fiskalen akordioak?**

**Ez da onargarria. Kolpista hutsak dira eta bide bazterrean alboratu nahi dituzte eurekin bat ez datozen guztiak. Argitu beharra du aginte politikoak eta instituzionalak horrelako jarrerak beharrezko estaldura politikoa duten ala ez. Oso larria litzateke bestela. Ez dute gogoko, ez dute onartzen, indar kolektiboa ordezkatzen duen erakunde autonomo eta independentea agerian uztea agintekeriaz eta demokraziaren aurkakoa den bere jarduera. Mendekuzaleak eta harroak dira, baina ez dute lortuko gu akabatzea.**

**Lankidetu!**

## ELAko Batzorde Eragilearen ustez Confebask patronalak ELA eta LAB sindikatuak paretik kendu nahi ditu

# "EROSI EZIN DUEN GUZTIAREKIN AMAITU NAHI DUTE"

Aurrekariak: Espainiako Gobernuak Elkarte Sindikal eta Enpresarialen Estatutuen Gordailuari buruzko Errege-Dekretuaren zirriborro bat aurkeztu du. Zirriborro horren xedea estatutuen gordailu sistema hori moldatzea da, "erakunde sindikal eta enpresarialen estatutuen gordailuaren prozedura administratibo guztian administrazio elektronikoa ezartzeko". Tira, horraino, ondo. Ez dago arazorik.

Zirriborro hau dela eta erakunde sindikal eta patronalek eta gobernu autonomikoek alegazioak egin ditzakete. Tira, honaino ere ondo. Orduan, zein da arazoa? Prozedura honetan Confebaskek agiri bat egin du CEOEk bere egin dezan. Agiri horretan, artikulu bat gehitzea proposatzen du. Artikulu horretan, ofizioz edo alde batek eskatuz gero sindikatu bat erregistro horretatik ezabatzea eskatu ahal izatea nahi du Confebask-ek. Hau da, Confebaskek tramite hau baliatu nahi du ELA eta LAB sindikatu diren aldetik ezabatzeko mekanismo bat ezar dadin, dokumentuan hitzez-hitz jasotzen duenez. (Oharra: ELAren web atalak Confebasken dokumentua jasotzen du, bere osotasunean).



**Ante la enorme gravedad del documento elaborado por Confebask –en el que exige la ilegalización de ELA y LAB–, el Comité Ejecutivo de ELA realizó una comparencia pública el pasado 26 de noviembre. La valoración íntegra del sindicato se puede leer tanto en la página 2 de este *Astekaria* como en la página web (http://www.ela-sindikatua.eus). Además, también se recoge en la web el documento íntegro elaborado por Confebask.**

### SINDIKATU IZAERA GALTZEA NAHI DUTE

Dokumentu honen larritasunaren aurrean, ELAko Batzorde Eragileak agerraldi publikoa egin zuen azaroaren 26an. Hitz gogorrak izan zituen bertan Adolfo Muñoz idazkari nagusiak Confebasken proposamenaren aurka. "Patronalak zera nahi du: Confebaskek ELAk eta LABek sindikatu izaera galtzea. Izan ere, defentsa kolektibo antolaturik gabe, indartsuago baita. Frankismora itzularazi nahi gaitu, hau da, ELA 40 urtez legez kanpo egon zen garai hartara. PPk patronalari honek eskatu duen guztia eman dio, eta Confebaskek orain galdegiten dio Euskal Esparrutik ez daitezela berau defenditzen duten sindikatuak ere geratu. Confebaskek aspaldian erabaki zuen lege espainiarrak ematen zionarekin fidatuko zela, beste ezerekin ez".

Muñozen ustez horrelako proposamenak soilik posible dira jakin dakizunean botere politikoaren babesa duzula. "Confebask neurri hau proposatzera ausartzen da uste duelako botere politikoaren babesa duela, Eusko Jaurlaritzarena barne. Urriaren 20an ELAk jakinarazi zuen bere iritzia Eusko Jaurlaritzak elkarrizketa sozialeko mahaia eratzeari buruz egindako agiriaz. Dokumentu hartan Jaurlaritzak zioen bere eginkizuna dela sindikalismoaren eginkizuna zein den *mugatzea*, besteak beste esanaz sindikatuok ez badugu onartzen gobernuak proposatzen duen gizarte-eredua defenditzea, litekeena dela zigor ekonomikoak ezartzea".

ELAko idazkari nagusiaren ustez egungo testuinguruak argi erakusten digu orain arteko bidetik segitzearen garrantzia. "Klaseko sindikalismo abertzalearen aurkako sekula ikusi gabeko eraso hau ikusirik, ELAk estrategikoa den puntu bat nabarmendu nahi du: klaseko erakundeen eta ekintza kolektiboaren defentsa. Hauxe da legeek patronalari ematen dioten neurrigabeko boterea geldiaraz dezakeen errealitate bakarra. PPri gure ilegalizazioa eskatzen dionak ez du sinesten ez Lan-Harremanen Euskal Esparruan, ezta oreka sozialean ere; aitzitik, hori ahal den era guztietan borrokatzea erabaki du. ELAren aburuz, justizia eta solidaritatea oinarritzat duen eredu sozialik ez dago hau posible egiten duen indar-erlazio sindikal eta politikorik gabe".

### GOLPISTA HUTSAK DIRA

Agerraldia amaitzeko Muñozek bi ideia aipatu nahi izan zituen. Lehena, Confebasken izaera. "Egunero erakusten dute hamaika aldiz esan duguna: nekez aurkitu liteke Europa osoan patronal ultragorik. Confebaskek dena erosi nahi du bere aginduetara jardun dezan, eta erosi ezin dutena –ELA, esaterako– txikitu egin nahi dute. Jarrera golpista hutsa da, jarrera faxista bat".

Bigarren aipamena, elkartasunaren ingurukoa. "Erasoa oso larria da. Eta, uste dugu, egoera honetan CCOO eta UGT sindikatuek euren jarrera argitu beharko luketela. Eurak egoera honetan baleude gure elkartasun osoa izango lukete. Bestalde, premiazko bilera eskatu diogu Urkullu lehendakariari. Uste dugu onartezina dela *Elkarrizketa Sozialeko mahaia* martxan jartzea horrelako jarrerak dituztenekin".

## La patronal Confebask propone la ilegalización de ELA y LAB

# SON UNOS GOLPISTAS




***Confebask ha dejado claro que pretende eliminar todo aquello que –como ELA– no puede comprar.***

El Gobierno español ha presentado un Borrador de Real Decreto sobre el Depósito de Estatutos de las Asociaciones Sindicales y Empresariales. El objeto de ese borrador es adaptar el actual sistema de depósito de dichos estatutos para "implantar la administración electrónica en la totalidad del procedimiento administrativo de depósito de los estatutos de las organizaciones sindicales y empresariales". Hasta aquí, todo normal.

Ante este Borrador las organizaciones sindicales y empresariales, así como los Gobiernos autonómicos, pueden presentar alegaciones. Confebask ha elaborado un documento para que la CEOE lo haga suyo en este proceso de alegaciones. ¿Qué propone Confebask?

- Añadir un artículo que permita que, de oficio o a instancia de parte, pueda promoverse la baja de un sindicato de ese registro. La explicación de Confebask es clara. "Confebask tiene un especial interés en este asunto. Es sobradamente conocida la estrategia del sindicato mayoritario en el País Vasco, ELA, a la que está arrastrando además al tercer sindicato, LAB, con quien suman cerca del 60% de la representatividad sindical... Han entrado en la dinámica de boicotear (con éxito) que exista y se practique por el resto de agentes dicho diálogo social.... y... dedican buena parte de sus esfuerzos a cuestiones ajenas a los fines que le son propios, como todo lo referido al tren de alta velocidad, o que solo muy colateralmente tienen que ver con la acción sindical (iniciativas legislativas sobre cláusulas sociales o en materia fiscal)".
- Para Confebask ELA y LAB no somos sindicatos, y no se nos debería reconocer como tales. Así lo expresa mediante el siguiente párrafo: "Por supuesto que dichas organizaciones pueden libremente dedicarse a lo que estimen más oportuno, pero no deberían, envestidas de lo que realmente no son, poder condicionar e incluso anular la actividad propia de las organizaciones empresariales y sindicales que sí lo son realmente".

Es decir, Confebask quiere aprovechar este trámite para establecer un mecanismo que permita eliminar a ELA y a LAB como sindicatos.

**Ante esto, ELA considera:**

**1. Confebask pretende acabar con el fundamento de una sociedad con equilibrios y cohesión social.** Nos encontramos ante un planteamiento patronal muy grave, totalmente antidemocrático. ELA es el principal sindicato de Euskal Herria, el que tiene mayor afiliación y representación en las elecciones sindicales. Confebask ha manifestado en muchas ocasiones que no le gusta que eso sea así.

Confebask quiere que ELA y LAB perdamos la condición de sindicatos porque, sin defensa colectiva organizada, ellos son más fuertes. Quiere retrotraernos al franquismo, cuando ELA estuvo 40 años ilegalizado. Al PP, que ha dado a la patronal todo lo que ha pedido, le pide que del Marco Vasco no queden ni los sindicatos que lo defienden. Hace muchos años que Confebask decidió confiar solo en lo que le daba la ley española.

ELA, ante este ataque sin precedentes contra el sindicalismo de clase y abertzale, quiere llamar la atención sobre algo que nos parece estratégico: la defensa de las organizaciones de clase y de la acción colectiva. Es lo único que puede poner freno al inmenso poder que las leyes regalan a la patronal. Quien pide al PP nuestra ilegalización no cree ni en el Marco Vasco de Relaciones Laborales ni en el equilibrio social; al contrario, ha decidido combatirlo por todos los medios. ELA afirma que no puede existir un modelo social basado en la justicia y la solidaridad sin una correlación de fuerzas sindical y política que lo haga posible.

Lo que propone Confebask no lo llevó a cabo ni siquiera Margaret Thatcher en su obsesión antisindical en Gran Bretaña. Entonces se trataba de eliminar obstáculos al neoliberalismo y el sindicalismo era uno de los más potentes. Pues bien, ELA se reafirma en que si los y las trabajadoras –las personas más débiles– queremos tener una oportunidad para defender nuestros intereses y expectativas, necesitamos organizaciones sindicales fuertes plenamente autónomas de gobiernos y patronal. Eso es ELA y eso seguirá siendo.

**2.- Confebask aparece como la organización patronal más reaccionaria de todo el Estado.** Una organización que, además de plantear una cruzada contra los derechos laborales y sociales, pretende castigar con la ilegalización a aquellas organizaciones que nos oponemos a eso. A ELA no se le escapa que esta barbaridad que pretende la patronal está perfectamente calculada, habida cuenta de la inexistencia en sede gubernamental de nadie capaz de marcarle un solo límite. Da por descontado que no habrá oposición de los gobiernos, a lo más palabras ambiguas.

Confebask pretende negarnos el derecho, como organización sindical, a realizar propuestas sobre política fiscal, a llevar a cabo Iniciativas Legislativas Populares como la que hemos impulsado para defender los derechos laborales de quienes trabajan en las subcontratas, y que ha contado con más de 110.000 firmas de apoyo para llegar al Parlamento, o para hablar del TAV. Mientras Confebask puede actuar en todo aquello que se le antoja (este mismo fin de semana el director general de Confebask pedía medidas fiscales y mayor seguridad jurídica para la reforma laboral), exige al gobierno del PP que se nos prohíba a los demás esa posibilidad. En materia fiscal, por ejemplo, Confebask acordó con las Haciendas que las empresas no devolvieran las vacaciones fiscales, tal como obligaba Europa (ese acuerdo secreto nos ha costado 30 millones de € de multa).

La cuestión no es que hablemos de ciertos temas, sino que lo hagamos para defender posiciones que no son las de la patronal y las del poder político. Si diésemos cobertura a las políticas presupuestarias y fiscales, a los recortes, a las reformas de pensiones, etc., entonces no habría problema. Lo que quieren es eliminar la disidencia.

Confebask quiere tener el monopolio de la presión a los gobiernos; quiere, imponiendo en la ley su visión antidemocrática, lograr más de lo que ya obtiene con el funcionamiento de la *puerta giratoria*; esa puerta que permitió al ex secretario general de SEA pasar a ser Diputado de Hacienda en Araba, y al ex diputado de Hacienda de Bizkaia pasar a ser alto cargo en CEBEK.

**3. En opinión de ELA, Confebask se atreve a proponer esta medida porque entiende que tiene la cobertura del poder político, incluido el Gobierno Vasco.** El pasado 20 de octubre ELA hizo pública su posición sobre el documento presentado por el Departamento de Empleo del Gobierno Vasco de cara a la puesta en marcha de la mesa de diálogo social. ELA ya denunció que en ese documento el Gobierno defendía que su función era la de "acotar" el papel del sindicalismo; manifestando, entre otras cosas, que si los sindicatos no aceptábamos defender el modelo de sociedad que plantea el Gobierno, podríamos ser sancionados en términos económicos.

Ese mismo documento señalaba también a ELA como un problema por su posición en cuestiones como el diálogo social, la participación institucional o el cuestionamiento de la representación otorgada a la patronal. La patronal usa el mismo argumento que el Gobierno, pero se atreve a concretar una sanción de punto final: eliminar a quien considera enemigo haciéndonos perder la condición de sindicato. ELA quiere recordar que el Gobierno no hizo público el nombre de los expertos que le "asesoraron" en la elaboración del Documento; un Documento que ELA valoró afirmando que "el Gobierno Vasco defendía un sindicalismo vertical". Es obvio que Confebask estuvo muy bien representada entre los "asesores" del Gobierno.

Esta actitud de Confebask es del todo congruente, además, con sus posiciones de bloqueo en materia de negociación colectiva. Al leer la última reforma, Confebask concluyó que ya no necesitaba negociar y que debía combatir al sindicalismo que no apoyase sus planes para aumentar la precariedad laboral y las desigualdades sociales. Es lo que está haciendo.

**A la vista de la indiscutible gravedad de la propuesta de Confebask, el Comité Ejecutivo de ELA ha tomado las siguientes decisiones:**

**1.-**Exigir al Gobierno español que rechace la propuesta de Confebask.

**2.-**Desarrollar una campaña para que la clase trabajadora y el conjunto de la sociedad sean conscientes de la gravedad de las intenciones de Confebask. Dentro de esa campaña, ELA emprenderá acciones en defensa del derecho a la libertad sindical; derecho que entendemos debería concitar el apoyo radical de todas las organizaciones sindicales. Actuando de esta manera Confebask es un peligro para la democracia.

**3.-**ELA, con el objeto de abordar esta cuestión, ha solicitado la celebración de dos reuniones urgentes; una con el Lehendakari Sr. Urkullu, y la segunda, con el presidente del EBB del PNV, Sr. Ortuzar, partido responsable de la acción del gobierno.

**4.-**Asimismo, daremos a conocer nuestra valoración al resto de partidos políticos, con los cuales estamos dispuestos a reunirnos para tratar esta cuestión.

**5.-**ELA exige al Gobierno Vasco que no ponga en marcha la denominada "mesa de Diálogo Social", anunciada para la primera semana de diciembre. Sentarse con una patronal que tiene como objetivo eliminar como sindicatos a ELA y a LAB es dar cobertura a esa posición. No se puede dar apariencia de normalidad a algo tan poco normal. Además, nuestra ausencia de la Mesa sería utilizada, de prosperar lo que demanda Confebask al PP, como coartada para iniciar el procedimiento de ilegalización. Hablamos de mínimos democráticos sobre los que no debe caber ningún tipo de deslizamiento. Si lo hubiere, sería gravísimo, y ELA actuaría en consecuencia. Las preguntas que trasladamos a Urkullu son las siguientes: ¿Está de acuerdo con que, si ELA y LAB no acudimos a esa mesa, se nos pueda retirar la condición de sindicatos? Siendo esa la solicitud de Confebask, ¿se va a sentar en una mesa de diálogo social con una patronal que pide eso?

## Txema Laiseka, responsable de elecciones sindicales

# "HAY QUE DISPUTAR HASTA EL ÚLTIMO VOTO"



Hay que mantener la tensión hasta el final". Ese es el mensaje que quiere trasladar al conjunto de la militancia Txema Laiseka, responsable de elecciones sindicales. A pesar de que noviembre ha transcurrido según lo previsto y los resultados una vez superado el ecuador del periodo concentrado de elecciones sindicales son buenos, los últimos acontecimientos nos demuestran "lo importante que es que ELA siga siendo el gran sindicato mayoritario de Euskal Herria".

**-Hace unas semanas decías que noviembre y diciembre iban a ser meses vitales. ¿Se están cumpliendo los objetivos?**

-Sí. Por un lado, seguimos manteniendo nuestra altísima representatividad en las PYMES, un dato vital pensando en el objetivo de sindicalizar las empresas y organizarnos para poder negociar el mayor número de convenios con los mejores contenidos posibles. Y por otro, en las empresas de comité, hemos repetido resultados en ámbitos con representación ya muy alta, incluso mejorado. También es cierto que hemos perdido algún delegado/a, es el caso de Mercedes.

Concretando un poco más: en noviembre, en total, se han elegido 1.240 delegados/as y hemos obtenido, a fecha de 28 de noviembre, 585; es decir, el 47,18%. El anterior *Astekaria* decía que obtener el 45% de todo lo que se votara en noviembre sería un buen resultado... Pues bien, estamos por encima.

**-¿Estamos notando la elección de menos delegados/as debido al cierre de empresas o la destrucción de empleo?**

-Sí. Un dato significativo que podemos aportar ya es que en este periodo se han elegido 1.000 delegados/as menos. Aparte de la lectura dramática en términos de empleo que este dato refleja, no podemos obviar que en términos electorales a quien mayor afecta es al sindicato mayoritario.

**-¿Qué esperas que pase en diciembre?**

-Esperamos seguir cumpliendo las previsiones. Para ello es fundamental huir de triunfalismos o relajarnos; tenemos que mantener la tensión hasta el último momento. El día de las elecciones nuestros militantes en las distintas empresas tienen que conseguir que vote el mayor número de personas posible a nuestra lista. Tenemos que tener el chip de que cada voto es el decisivo, porque no sería la primera vez que se gana o pierde un delegado/a por un sólo voto.

ELA se ha marcado un objetivo muy importante, que no es otro que la defensa colectiva de la clase trabajadora. El futuro de nuestras condiciones laborales se va a decidir en las empresas y a día de hoy ELA es el único sindicato que se está preparando para ello. Por eso, los resultados electorales son vitales: tener muchos y buenos delegados/as y militantes es fundamental para nuestro futuro. Hemos visto esta semana cuáles son los deseos de la patronal: eliminarnos. Cuanto más fuertes seamos más difícil se lo pondremos. Tal como están las cosas votar a ELA tiene un significado añadido.

**-Navarra. Los ritmos del proceso electoral son distintos a los de la CAPV, pero ¿qué valoración haces de lo acontecido hasta el momento?**

-Para ELA, el momento crítico del periodo concentrado en Navarra han sido –y serán– los meses de octubre a diciembre, donde casi el 30% de los delegados/as que caían eran de ELA. La valoración que hacemos es positiva. Han sido muchos los delegados/as que hemos perdido por cierres o bajadas de censo y estamos siendo capaces de compensarlo irrumpiendo en comités en los que no teníamos representación y concurriendo en PYMES en los que no había delegado/a de ELA. En el primer semestre de 2015 el porcentaje de delegados/as de ELA que se pondrán en juego es menor a nuestra representación, por lo que la situación de partida es buena. La clave va a ser la capacidad que tengamos de trabajar cada elección con anticipación, planificación y organización.

### ALGUNOS RESULTADOS

**GASTEIZ**

* **Ayuntamiento Gasteiz. 14** de 30.
* **Mercedes. 5** de 27.

**DEBA**

* **Aita Meni. 13** de 13.
* **Juan de Garay. 8** de 13.
* **Naatra Zahor. 9** de 13.

**OARSO-BIDASOA**

* **Arcelor Mittal Lesaka AMDS. 4** de 9.
* **Arcelor Mittal Lesaka. 3** de 9.
* **CAF Irún. 6** de 13.

**ORIA-GOIERRI**

* **Inviza. 7** de 13.
* **CAF Beasain 9** de 25.

**IBAIZABAL-NERBIOI**

* **Arcelor Mittal Etxebarri. 7** de 21.
* **Ayuntamiento Arrigorriaga. 3** de 3.
* **Aiala Vidrio. 8** de 13.
* **Firestone Basauri-Galdakao. 6** de 24.

**DONOSTIA**

* **Campezo Construcciones. 4** de 5.
* **Angel Iglesias Ikusi. 13** de 13.
* **Diario Vasco. 9** de 9.
* **Thyssen Krupp. 4** de 5.

**GERNIKA-DURANGO**

* **Ayuntamiento Durango. 6** de 9.
* **Cie Udalbide. 3** de 5.

**ESKUMALDEA**

* **Indumetal Recycling. 3** de 5.
* **Mesa SA. 8** de 13.
* **Vial Industria Farmacéutica. 9** de 9.
* **Basalan. 9** de 9.
* **Técnicas Hidráulicas. 5** de 5.

**EZKERRALDEA**

* **Colegio Alazne. 3** de 5.
* **Sertisa. 3** de 3.

**NAFARROA**

* **General Mills San Adrián. 5** de 17.
* **Arcelor Mittal. 5** de 13.
* **Bodegas Gran Feudo 2** de 5.
* **Sinase. 3** de 3.
* **Aspace. 6** de 9.
* **Piscina Amaia. 3** de 3.
* **Lázaro Taberna. 3** de 3.

**UROLA-KOSTA**

* **Ayuntamiento Orio (L). 3** de 3.
* **Viveros San Antón. 3** de 3.

**BILBAO**

* **Cortefiel. 9** de 9.
* **Super BM. 14** de 17.
* **TECSA. 3** de 4.
* **Salesianos Deusto. 9** de 9.

## LABURREAN / BREVES




### • La plantilla de Arkema en Paris...

La plantilla de Arkema se desplazó el 26 de noviembre a Colombes –localidad cercana a Paris donde se encuentra la sede central de Arkema– para denunciar ante la dirección la multinacional su intención de cerrar la planta de Alonsotegi. Por otra parte, la plantilla de Arkema quiere denunciar que la multinacional francesa ha presentado otro ERE ante la Delegación de Trabajo. Este ERE tiene el mismo objetivo que el anterior: cerrar la planta de Alonsotegi. (El anterior ERE, presentado el 17 de septiembre, fue denegado al estar lleno de irregularidades).

### • ...y la de ENC-Cable Group en Barcelona

Las y los trabajadores de la multinacional norteamericana Cable Group –antigua ECN, situada en Gasteiz y en la que trabajan 150 personas– acudieron a Barcelona –donde la multinacional tiene una de sus sedes– para denunciar que el grupo pretende cerrar la planta alavesa. La plantilla denunció que el intento de cierre no tiene justificación, pues hablamos de una planta totalmente viable, sin ningún problema económico y con beneficios.



### • ELA denuncia el proceso de desmantelamiento de Euskaltel

Euskaltel ha decidido que 143 empleados/as dejen la empresa y pasen a formar parte de una nueva empresa china. ELA denuncia este nuevo proceso de externalización, que a futuro va a suponer irremediablemente una pérdida de derechos laborales.

ELA recuerda que Euskaltel –proyecto industrial nacido e impulsado por el ámbito público–, y que está en un momento económico inmejorable –230 millones de beneficios en 2009-2012–, se ha entregado al capital especulativo: en concreto, dos fondos de inversión con domicilio en Holanda.

### • 4 de diciembre: huelga en Osakidetza

Los sindicatos con representación en Osakidetza han convocado una jornada de huelga en todos los centros públicos de salud de la CAPV para el 4 de diciembre. Pello Igeregi, responsable de ELA en Osakidetza, considera que la dirección Osakidetza sigue sin querer afrontar las dos peticiones para abandonar la dinámica de movilización sindical: poner fin a lor recortes e implantar una serie de medidas propuestas para garantizar un servicio público de salud de calidad. Igeregi destaca que, en caso de seguir con su actual cerrazón, la plantilla continuará con las movilizaciones. Además, Igeregi valora muy positivamente la respuesta a la jornada de huelga celebrada el 27 de noviembre en Bizkaia.

astekaria

### ELAk formazio jardunaldi arrakastatsua antolatu zuen azaroaren 25ean

# INDARKERIA SEXISTAREN BIKTIMAK GOGOAN




***Formazio jardunaldiaren ostean ELAk bilkura egin zuen Arriaga Plazan, 'Lan mundutik indarkeria sexista STOP!' lelopean. Gainera, ELAk bat egin zuen arratsaldean mugimendu feministak deitutako mobilizazioekin –argazkian Iruñeako manifestazioa– .***

Azaroak 25, Indarkeria Sexistaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Goizeko 10:00ak jo aurretik jendez gainezka dago Bilboko Bidebarrieta liburutegia: gutxi dira libre gelditzen diren eserlekuak, eta oraindik badago jendea areto nagusiaren kanpoaldean. Iragan astean bizi izandako egoera honek agerian uzten du ELAk azaroaren 25a zela-eta antolatutako formazio jardunaldiak sortutako ikusmina. Eta, ikusmina handia izan arren, lasai asko esan dezakegu entzule guztiak asebeteta atera zirela. Izan ere, bi hitzaldi bikain entzuteko aukera izan zuten, Jone Bengoetxearen –ELAko genero arduraduna– eta Irantzu Varelaren –kazetari eta feminista– eskutik.

**Irantzu Varela**k bere parte-hartzean azpimarratu zuenez, emakumeen kontrako indarkeria legitimatzen duen gizarte batean bizi gara. "Garrantzitsuena da konturatzea indarkeria sexista ez dela soilik jo eta hiltzen gaituztela. Indarkeria sexista da ere sinestarazi nahi digutela emakumeek pairatzen dugun zapalkuntza gure naturan bertan dagoela".

Indarkeria horren hiru ondorio nagusiez jardun zuen bere hitzaldian. Gauzak honela aukeratutako izenburua –*Patriarkatua, erroetatik azalera. El machismo mata, empobrece y atonta*– aztertzeari ekin zion. "Matxismoak hiltzen duela inork ezin du zalantzan jarri. Agerikoa da hori, datuei erreparatu besterik ez dago. Pobretzen duela ez dugu horren argi, mundu zabalean pobrezian bizi diren hamar lagunetik zazpi emakumeak izan arren. Egoera, gainera, larriagotu egin da kapitalismoak eragindako dago abagune sozial eta ekonomiko honetan. Emakumeak gehiago, lehenago eta okerrago pobretzen gara. Eta, lehenengo bi ezaugarri hauek –hiltzea eta pobretzea– ez lirateke posible izango matxismoak tontotuko ez bagintu".

"Matxismoa –gaineratu zuen– dominazio sistema bat da, eta guztiok tontotzen gaitu, gizonezkoak zein emakumezkoak. Sistemaren oinarria erraza da ulertzen: gizonezkoek pribilejioak dituzte emakumeen eskubideen kontura. Berez zaila da ulertzea nola emakumeok bake soziala ahalbidetzen dugun eskubideak kentzen dizkiguten arren. Era berean zaila da ulertzea nola gizonezkoak lasai bizi diren jakinda eskubideak kentzen dizkietela emakumeei. Baina, zer gertatu da? Nola da posible? Ba patriarkatuak oso ondo egin duelako bere lana. Kultura, zientzia, ekonomia, politika... Esparru guzti hauetan ezarri den dominazio sistemak sinestarazi egin nahi digu gizonezkoen eta emakumezkoen arteko ezberdintasunak egoera natural baten ondorio direla. Hots, emakumeak ordezkaritza politiko txikiagoa, baliabide gutxiago edo lan prekarioagoa izatea egoera natural baten ondorio direla sinestarazi digute. Eta, noski, hori ez da horrela".

## IKUSTEN EZ DEN INDARKERIA SEXISTA SALATUZ

Bestalde, **Jone Bengoetxea**k ikusezina den, baina era beran erabat barneratuta daukagun indarkeria sexistaren inguruan mintzatu zen. "Indarkeria mota hau lan munduan eta lan mundutik kanpo dago. Eta, zoritxarrez, oso zaila da indarkeria sexistaren kontra borrokatzea ikusezin gisan definitu dugun indarkeria hori ikusteko ahaleginik egiten ez badugu".

"Batzuetan gauzak ez dira itxuraz ematen dutena. Gauzek gure barnean esanahi desberdinak jasotzen dituzte sinbolo eta sinesmen konpartitu eta naturalizatu batzuen arabera. Eta imajinario sozial horretan, gure subjektibitatetik –eta ez kanpotik esaten digutenetik–, bai gizon zein emakumeek non egon eta zer egin behar dugun ikasten dugu gure desberdintasun biologikoan oinarrituta. Desberdintasun biologiko horixe da hain zuzen ere desberdintasun soziala justifikatu egiten duena, naturala bilakatzen duena emakume eta gizonen arteko egiturazko desberdintasun egoera eta biolentzia sexistaren bidea leuntzen duena".

"Hau ulertzen ez badugu, sakoneko erroei tira egiten ez badiegu, emakumeek-emakume izate hutsagatik pairatzen duten indarkeria era kroniko baten betikotzen jarraituko da, bere adierazpen desberdinekin".

## LABURREAN / BREVES



### • Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak datozen hilabeteetarako erronkak aurkeztu ditu

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren ordezkariek hurrengo hilabeteetarako jarri diren helburuak eta dinamika herrikoi honen kudeaketaz arduratuko den Koordinazio Nazionala aurkeztu zuten azaroaren 19an Bilbon.

Datozen hilabeteetarako dinamika aurkezteko orduan hiru mugarri nabarmendu zituzten Kartaren arduradunek. Lehena, zabalkundea. Horretarako hainbat herrietan aurkezpenak egingo dira; dagoeneko Iruñean –azaroak 20– eta Bilbo –azaroak 21– egin dira. Helburua Karta sustengatu duten eragileen artean sentsibilizazioa zabaltzea izango da, eta bere garaian sinatu ez zutenen atxikimendua lortzea. Prozesu hau hainbat hilabetez luzatuko da. Bigarren mugarria 2015eko martxoaren 14ko mobilizazio eguna izango da. Egun horren helburua Karta sostengatzen duten guztien babesarekin ahalik eta presio sozial handiena egitea izango da, Kartaren edukiak gauzatu daitezen. Hirugarren mugarria, berriz, 2015eko urriaren 24an Bilbon antolatuko den Alternatiba Eguna izango da. Bertan, erronka iragan urtean Baionan antolatu zen Alternatiben Herrixken helburuei jarraipena ematea izango da.

Hau guztia posible egiteko Koordinazio Nazionala aurkeztu zen, herri dinamika hau kudeatzeaz arduratuko den organoa. Hamabi lagunek osatuko dute Koordinazio Nazionala: ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuetako lagun bana eta honako alorretan lan egiten duten gizarte eragile ezberdinen ordezkari bana: feminismoa, sexu aniztasuna, eskubide sozialak, ingurugiroa, osasuna eta gaztedia.

**www.ela-sindikatua.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela-sindikatua.eus**

**Franqueo concertado
nº 08/207**